

[ASTIGARRAGA](#)

Sagardoa eta itsasoa

Kronika - Erredakzioa 2021-04-17 09:30



Euskal sagardoak eta itsasoak lotura estua izan dute historian zehar. XVI. mendean hainbat hilabetez Ternuara joaten ziren marinelek bidaiarako beharrezkoak ziren elikagai, tresna eta edariak prestatzen zituzten; eta horietan preziatuenetarikoa zen sagardoa. Edari honi esker eskorbutoa harrapatzea saihesten zuten, eta pertsona eta egun bakoitzeko bi litro sagardo eraman ohi zuten itsasontzietan. Honen ondorioz, garai hartan baserrietatik portuetarako merkataritza mugimendua izugarri hazi zen.

Sagardoaren eta itsasoaren arteko harremana bizitzeko, Astigarragako Sagardoetxeak "Sagardoa eta Itsasoa" ibilbidea eskaintzen du, horietako zati bat Pasaian edota Donostian eginez. Ibilbideetako batean, lehenbizi, Pasaian dagoen Albaola Itsas Kultur Faktorian Kanadan lurperatutako San Juan baleontziaren erreplikari bisita egiten zaio, bidaia horien inguruan ikasteko. Bestean, ordea, Donostiako Aquariuma bisitatzeko da, ostean Kontxako badian zehar txalupan ibiliz. Ondoren, aurreko hilabeteko artikuluan aipatu genuen Astigarragako Sagardoetxeari bisita egiten zaio, sagardoaren inguruan gehiago ikasteko. Esperientziarekin amaitzeko, Astigarraga eta inguruetako sagardotegi batean bertako gastronomiaz gozatzeko aukera eskaintzen du ibilbide honek.

Egun, COVID-aren ondorioek eta Pasaia portuko obrek Albaola Itsas Kultur Faktoria denboraldi baterako ixtea eragin dute. Ez da behin-betiko itxiera izango, ordea; laster irekitzea espero dugu, jendeak ibilbide interesgarri honetaz goza dezan.

ASTIGARRAGAKO UDALAK BABESTUTAKO ATALA



[Kultura Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun ▼



Lizardi sariketa bateak
irelako bizitza berriz
gazteentzako Maratunari



Ohorezko Mailako
Hernanik garaipen batekin
bigarren postuan amaitu
du lehenengo fasea



'Kanona' gaituzan
jartzen mahaingurua,
gaur Erriberan



Buztinarekin eskulana
gaur berriro

Ikusienak



[Gaurtik ostiralera arte zabalik, udaleku irekietan zein kirol udalekuetan izena emateko epea](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Garaipena lortu zuen atzo Hernanik El Rion, eta finalerdietarako sailkatu da](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Juul literatur hauteskunderen aukeratua, Alai Zubimendiren lana](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Ezusteak Zinkoenean, gaur goizean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 24 [Hernani](#)



[Aho zabalik, larunbateko ikuskizunean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Astigarraga](#)



['Lurralde erotiko berriak esploratzeko ataria' tailerra, emakumeon etxean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 23 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



TOKIKOM

Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)